




IKASLEENTZAKO ERAMANGARRIAK

Hasiera gida

1. Zer banatuko zaizu?
2. Nola piztu eta nola hasi saioa?
3. Nola aldatu pasahitza?
4. Non gorde gauzak?
5. Nola konfiguratu Firefox hobeto lan egiteko?
6. Nola konektatu etxeko WiFira? (Ordenagailua etxera eramaten baduzu)
7. Aholkuak
8. Luberri sistema eragileko aplikazioak

Egileak: Antigua-Luberri BHIko Iker Gonzalez eta Alain Urizar

Lizentzia: 

1. Zer banatuko zaizu?

Ordenagailua ikastetxean utziko baduzu (DBH1/2):


- Ordenagailua.
- Sagua.
- Armairuan ordenagailua gorde eta kargatzeko tokia.

Ordenagailua etxera eramango baduzu (DBH3/4 eta Batx1/2):

- Ordenagailua.
- Sagua.
- Kargadorea.
- Poltsa.

2. Nola piztu eta nola hasi saioa?

Ordenagailua pizteko, goi-eskuinean dagoen pizteko botoia sakatu.



Ordenagailua **kargatuta egotea zure ardura da**. Ikastetxean uzten baduzu, armairuan gordetzean kargatzen jarri. Eta etxera eramaten baduzu, etxean kargatu.

Luberri sistema eragilerak automatikoki abiatuko da. Itxoin piztu arte.




Saioa hasteko erabil itzazu eman zaizkizun **erabiltzailea** eta **pasahitza**. Erabiltzaile hori zure ordenagailuan bakarrik erabili ahal izango da.

3. Nola aldatu pasahitza?

Pasahitza aldatzeko aukera duzu.

Pantailaren goi-eskuinean zure izena agertzen da. Bertan klik eginda, berriro zure izena agertzen den horretan klik egin.




Pasahitza lerroko ***** gainean klik eginda aldatu ahal izango duzu pasahitza. Oraingo pasahitza eskatuko du aurrena eta gero bi aldiz berria jartzea. *Aldatu* sakatu.



Leiho horretan, zure erabiltzailearen irudia ere alda dezakezu.


4. Non gorde gauzak?



Karpeta lokalak

Ordenagailuan artxiboak, bideoak, argazkiak edo edozein gauza gordetzeko karpeta lokak batzuk daude: *Dokumentuak, Musika, Irudiak...*


Ordenagailuarekin arazoak daudelako, edo sistema berritu behar delako, *Luberri* sistema eragilea berriro instalatu behar bada, karpeta hauetako edukia galdu egingo da.



Karpeta lokalak

Hodeian

Ikasle guztiak *Drive* kontu bat duzue. Aukera hau erabiltzea gomendatzen zaizue. Hau da, artxibo, bideo edota argazkiak zuen *Drive* unitatean gordetzea.



Drive

Hodeia eta lokala sinkronizatzeko

Lokalean karpeta bat eduki dezakezu eta zure Driverekin sinkronizatua eduki. Hori lortzeko jarraitu esteka honetako jarraibideak:

<https://alexgabi.blogspot.com/2022/03/nola-sinkronizatu-ikasleeus-edo.html>

5. Nola konfiguratuta Firefox hobeto lan egiteko?


Ziurrenik, gehien erabiliko duzun aplikazioa nabigatzailea izango da. *Luberri* sistema eragilean 2 nabigatzaile daude instalatuta:

- Firefox: berrituagoa. Pantailaren goi-erdian atzipen zuzena duzu. Gomendatua.
- Chromium: sinpleagoa, baina erabilgarria.


Hizkuntza

Oraingoz ingelesezko bertsioa dago *Firefoxen*. Sistema berritzen dugunean, euskarazko bertsioa jarriko dugu. Oraingoan, alda ezazu hizkuntza eta jar ezazu euskara lehenetsi bezala.


Ireki *Firefox* eta sakatu eskuineko 3 marratxoetan. Agertzen den menuan, *Settings* aukeratu.




General ataleko *Languages and Appearance* ataleko *Language* atalean, sakatu *Set Alternatives...*




Nabigatzailearen hizkuntza aldatzeko, *Select a language to add...* atalean klik egin eta aukeratu *Basque*. Ondoren sakatu *Add* eta *OK*.



Erakutsiko diren orrien hizkuntza aldatzeko, *Choose your preferred language for displaying pages* atalean sakatu *Choose...* Ondoren, berriro, *Basque* bilatu eta *Add* eta *OK* sakatu.



Aldaketak aplikatzeko *Firefox* berrabiarazi behar da.




Hasiera-orria

Nabigatzailea irekitzean *Firefoxen* orria agertu beharrean Antigua-Luberri BHIkoa agertzeko aldaketa batzuk egin behar dira.

Sartu *Firefoxeko* ezarpenetan (3 murratxoetan klik egin eta *Ezarpenak* aukeratu). *Hasiera-orria* ataleko *Leiho eta fitxa berriak* ataleko *Hasiera-orria eta leiho berriak* aukeran idatzi <https://www.antigua-luberri.net>

Fitxa berriak atalean *Firefoxen hasiera-orria (lehenetsia)* aukeratu.




6. Nola konektatu etxeko WiFira?

Ikastetxeko WiFira automatikoki konektatutako da, baina ordenagailua etxera eramaten baduzu zure etxeko WiFira konektatzeko konfiguratu beharko duzu. Beste aukera bat kable bidez konektatzea da, horrela egin badezakezu ederto.

Goi-eskuinean, bateria neurtzailearen ezkerrean, WiFiaren ikonoa ikusiko duzu, egizu klik horren gainean.



Ondoren, ordenagailuak aurkitu dituen sare eskuragarriak erakutsiko dizkizu.



Etxeko WiFia bilatuko eta izenaren gainean klik egin ezazu. Agertuko ez balitz *Gehiago* gainean klik egin eta hor agertuko da.

Pasahitza eskatuko dizu. Pasahitza idatzi, *Konektatu* sakatu, itxoin segundo batzuk eta konektatuta egongo zara.

Pasahitza ez baldin badakizu, bideratzailearen (routerraren) azpian idatzia egongo da. WiFiaren izena ere hor agertuko da.

7. Aholkuak

- Gailuak dakarren estalkiarekin kamara estali erabili behar ez duzunean.
- Goxo tratatu, zure lan tresna izango da eta.
- Ordenagailuak matxuraren bat izaten badu irakasleari abisua pasa. Bera jarriko da arduradunekin harremanetan.



8. Luberri sistema eragileko aplikazioak








Irudia	Izena	Zertarako?
 <p>Abio-disko sort...</p>	ABIO DISKO SORTZEA	Abio-disko USBak sortzeko.
 <p>Abioko aplikazi...</p>	ABIOKO APLIKAZIOEN HOBESPENAK	Ordenagailua abiatzean programak gehitzeko edo aukeratzeko.
 <p>AisleRiot bakar...</p>	AISLE RIOT BAKARRA	Bakar-jokoa.
 <p>Artxibo-kudeat...</p>	ARTXIBO-KUDEATZAILEA	Konprimitutako artxiboak kudeatzeko.
 <p>Audacity</p>	AUDACITY	Audioak editatzeko.
 <p>Babeskopiak</p>	BABESKOPIAK	Ordenagailuko babes kopiak kudeatzeko.
 <p>Bideoak</p>	BIDEOAK	Bideoak ikusteko.

	BLENDER	Hiru dimentsiotako grafikoak modelatzeko, argitzeko, errendatzeko...
	BLEACHBIT AS ADMINISTRATION	Disko-gogorrean lekua egiteko.
	BLUETOOTH-A	Gailuak elkar konektatzeko.
	CELLULOID	Multimedia fitxategiak erreproduzitzeko.
	CHROMIUM WEB-NABIGATZAILEA	Interneten nabigatzeko.
	DATA ETA ORDUA	Nahi duzun tokiaren data eta orduak ikusteko.
	DESKLET-AK	Mahaigainean programatxoak bistaratzeko.
	DISKO ERABILERA	Aplikazio eta dokumentuek okupatzen dutena ikusteko.








 <p>Diskoak</p>	<p>DISKOAK</p>	<p>Disko gogorraren partizioak eta fitxategi-sistemak ikusteko.</p>
 <p>Doikuntzak</p>	<p>DOIKUNTZAK</p>	<p>Ordenagailuaren ezarpenak aldatzeko.</p>
 <p>Dokumentu-iku...</p>	<p>DOKUMENTU-IKUSKETA</p>	<p>Azken aldiko dokumentuak ikusteko.</p>
 <p>Dokumentuen ...</p>	<p>DOKUMENTUEN ESKANERRA</p>	<p>Dokumentuak eskaneatzeko.</p>
 <p>Domeinuan-sartu</p>	<p>DOMEINUAN-SARTU</p>	<p>Ordenagailua domeinu batean sartzeko.</p>
 <p>draw.io</p>	<p>DRAW.IO</p>	<p>Mapa mental, mapa kontzeptuala, diagrama edo irudikapen grafiko desberdinak marrazteko.</p>
 <p>Drawing</p>	<p>DRAWING</p>	<p>Marrazkiak sortzeko edo editatzeko.</p>








 <p>Egunkariak</p>	<p>EGUNKARIAK</p>	<p>Log fitxategiak kudeatzeko.</p>
 <p>Egutegia</p>	<p>EGUTEGIA</p>	<p>Agenda kudeatzeko.</p>
 <p>Energiaren est...</p>	<p>ENERGIAREN ESTADISTIKAK</p>	<p>Moldagailuaren eta eramangarriaren bateriaren xehetasunak ikusteko.</p>
 <p>Ezarpenak</p>	<p>EZARPENAK</p>	<p>Ordenagailuaren aukerak ikusteko eta konfiguratzeko.</p>
 <p>Firefox Web Br...</p>	<p>FIREFOX</p>	<p>Interneten nabigatzeko.</p>
 <p>Firewall Configuration</p>	<p>FIREWALL CONFIGURATION</p>	<p>Firewall-ak konfiguratzeko.</p>
 <p>Fitxategiak</p>	<p>FITXATEGIAK</p>	<p>Fitxategi arakatzailerak.</p>

 <p>Foliate</p>	FOLIATE	Liburu digitalak edukitzeko eta irakurtzeko.
 <p>GCompris</p>	GCOMPRIS	Jolas ugari, gazteenek jolasteko.
 <p>GDebi pakete-i...</p>	GDEBI PAKETE-INSTALATZEA	Paketeak (SW) instalatzeko.
 <p>GeoGebra Classic</p>	GEOGEBRA CLASSIC	Matematika lantzeko.
 <p>GNUren irudiak...</p>	GIMP - GNU-REN IRUDIAK	Irudiak editatzeko.
 <p>GoldenDict</p>	GOLDENDICT	Hizkuntza ezberdinetarako hitz eta esaldien itzulpenak egiteko.
 <p>Google Chrome</p>	GOOGLE CHROME	Interneten nabigatzeko.

 <p>Gromit-MPX</p>	<p>GROMIT-MPX</p>	<p>Ordenagailuko pantailan, oharrak jartzeko.</p>
 <p>Grub Customizer</p>	<p>GRUB CUSTOMIZER</p>	<p>GRUB menua editatzeko konfiguratzeko.</p>
 <p>gThumb</p>	<p>GTHUMB</p>	<p>Irudi bildumak fitxategi formatu desberdinetatik ikusi eta antolatzeko</p>
 <p>HandBrake</p>	<p>HANDBRAKE</p>	<p>Bideo eta audioak formatuz aldatzeko.</p>
 <p>Hedapenak</p>	<p>HEDAPENAK</p>	<p>Hedapenak kudeatzeko.</p>
 <p>Heimer</p>	<p>HEIMER</p>	<p>Mapa mentalak sortzeko.</p>
 <p>Hizkuntza-sost...</p>	<p>HIZKUNTZA-SOSTENGUA</p>	<p>Sistemako hizkuntzak kudeatzeko.</p>

 <p>IcedTea Web C...</p>	<p>ICEDTEA-WEB</p>	<p>OpenJDK softwarea erabiltzeko.</p>
 <p>ImageMagick (...)</p>	<p>IMAGE-MAGICK</p>	<p>Irudiak bihurtzeko, eraldatzeko, marrazteko, apaintzeko, animatzeko eta konposatzeko.</p>
 <p>Inprimagailuak</p>	<p>INPRIMAGAILUAK</p>	<p>Inprimagailuak kudeatzeko.</p>
 <p>Inkscape</p>	<p>INKSCAPE</p>	<p>Grafiko bektorialekin lan egiteko.</p>
 <p>Irudi-ikustailea</p>	<p>IRUDI-IKUSTAILEA</p>	<p>Irudiak ikusteko.</p>
 <p>Kalkulagailua</p>	<p>KALKULAGAILUA</p>	<p>Kalkuluak egiteko.</p>
 <p>Kalzium</p>	<p>KALZIUM</p>	<p>Taula periodiko osoa ikusteko.</p>

 <p>Karakterek</p>	KARAKTEREAK	Emoji asko, hizki bereziak eta hainbat ikur eskuratzeko.
 <p>KBruch</p>	KBRUCH	Zatikiak eta ehunekoak lantzeko.
 <p>KColorChooser</p>	KCOLORCHOOSER	Koloreak lortzeko eta kolore paleta pertsonalizatuak sortzeko.
 <p>KDE Connect</p>	KDE CONNECT	Fitxategiak beste gailu batzuetara bidaltzeko, multimedia erreprodukzioa kontrolatzeko, urruneko sarrera bidaltzeko, zure jakinarazpenak ikusteko eta askoz gehiagorako.
 <p>Kdenlive</p>	KDENLIVE	Bideoak editatzeko.
 <p>KGeography</p>	KGEOGRAPHY	Geografia ikasteko.
 <p>Kontrolatzaile ...</p>	KONTROLATZAILE GEHIGARRIAK	Driverrak kudeatzeko.

 <p>Kontuaren xehetasunak</p>	<p>KONTUAREN XEHETASUNAK</p>	<p>Erabiltzaileak konfiguratzeko.</p>
 <p>ksnip</p>	<p>KSNIP</p>	<p>Pantaila-argazkiak egiteko.</p>
 <p>KTouch</p>	<p>KTOUCH</p>	<p>Mekanografia lantzeko.</p>
 <p>Leihoak</p>	<p>LEIHOAK</p>	<p>Leihoak konfiguratzeko.</p>
 <p>LibreCAD</p>	<p>LIBRECAD</p>	<p>2D-ko diseinuak egiteko.</p>
 <p>LibreOffice Base</p>	<p>LIBREOFFICE BASE</p>	<p>Datu-baseak kudeatzeko.</p>
 <p>LibreOffice Calc</p>	<p>LIBREOFFICE CALC</p>	<p>Kalkulu-orriak kudeatzeko.</p>

 <p>LibreOffice Im...</p>	LIBREOFFICE IMPRESS	<p>Aurkezpenak prestatzeko.</p>
 <p>LibreOffice Draw</p>	LIBREOFFICE DRAW	<p>Irudi editorea.</p>
 <p>LibreOffice Math</p>	LIBREOFFICE MATH	<p>Formatu perfektuko formula matematiko eta zientifikoak txertatzeko.</p>
 <p>LibreOffice Wri...</p>	LIBREOFFICE WRITER	<p>Testu-dokumentuak kudeatzeko.</p>
 <p>Livepatch</p>	LIVEPATCH	<p>Ubuntu kernel-a ordenagailua berrabiarazi beharrik gabe eguneratzeko.</p>
 <p>Mahjongg</p>	MAHJONGG	<p>Jatorri txinatarra duen mahai jokoan jokatzeko.</p>
 <p>Mapak</p>	MAPAK	<p>Mapak kudeatzeko. Kokapena emateko, ikusteko...</p>








	<p>MASTER PDF EDITOR</p>	<p>PDF dokumentuak editatzeko.</p>
	<p>MINAK BILATZAILEA</p>	<p>Minak-bilatzailea jokoan jokatzen.</p>
	<p>MINDER</p>	<p>Mapak mentalak egiteko.</p>
	<p>MUESCORE 3</p>	<p>Musika sortzeko.</p>
	<p>NEXTCLOUD</p>	<p>Nextcloud zerbitzuak lokalki kudeatzeko.</p>
	<p>OBS STUDIO</p>	<p>Pantaila grabatzeko eta partekatzeko.</p>
	<p>ONBOARD</p>	<p>Pantailan teklatu digitala erabiltzeko.</p>

 <p>OpenShot Vide...</p>	<p>OPENSHOT VIDEO EDITOR</p>	<p>Bideoa editatzeko.</p>
 <p>Panels</p>	<p>PANELA</p>	<p>Panelak konfiguratzeko.</p>
 <p>Pantaila</p>	<p>PANTAILA</p>	<p>Pantailaren ezarpenak konfiguratzeko.</p>
 <p>Pantaila-argazkia</p>	<p>PANTAILA-ARGAZKIA</p>	<p>Pantaila-argazkiak egiteko.</p>
 <p>Pantaila-babeslea</p>	<p>PANTAILA-BABESLEA</p>	<p>Pantaila-babeslea konfiguratzeko.</p>
 <p>Pasahitzak eta ...</p>	<p>PASAHITZAK ETA GAKOAK</p>	<p>Pasahitzak kudeatzeko.</p>
 <p>Peek</p>	<p>PEEK</p>	<p>Pantaila zatien bideoak egiteko.</p>

	<p>PIX</p>	<p>Argazkiak editatzeko.</p>
	<p>REMINNA</p>	<p>Urrutiko mahaigainetara konektatzeko.</p>
	<p>RYTHMBOX</p>	<p>Musika digitala erreproduzitzeko.</p>
	<p>SAGUA ETA UKIPEN-TEKLATUA</p>	<p>Saguaren eta ukipen teklata konfiguratze.</p>
	<p>SAREA</p>	<p>Sarea konfiguratze.</p>
	<p>SCRATCH</p>	<p>Programatzen hasteko.</p>
	<p>SISTEMA-MONITOREA</p>	<p>Prozesuak, baliabideak (PUZ, RAM, sarea) eta fitxategi-sistemen egoerak ikusteko.</p>

 <p>Sistemaren informazioa</p>	<p>SISTEMAREN INFORMAZIOA</p>	<p>Sistemaren informazio ikusteko.</p>
 <p>Software-egun...</p>	<p>SOFTWARE-EGUNERATZEA</p>	<p>Software eguneraketak Kudeatzeko.</p>
 <p>Softwarea eta ...</p>	<p>SOFTWARE ETA EGUNERAKETAK</p>	<p>Gure softwareko eguneraketak ikusteko balio du.</p>
 <p>Software-kudeatzailea</p>	<p>SOFTWARE-KUDEATZAILEA</p>	<p>Software-an dauden aplikazioak edo instalatu ahal dituzun aplikazioak kudeatzeko balio duen programa da.</p>
 <p>Soinu-bihurtzailea</p>	<p>SOINU-BIHURTZAILEA</p>	<p>Soinuak bihurtzeko balio duen programa da.</p>
 <p>Soinua</p>	<p>SOINUA</p>	<p>Ordenagailuaren soinua konfiguratzeko balio du.</p>
 <p>Squeak</p>	<p>SQUEAK</p>	<p>Mundu birtualen simulagailu gisa lan egiten du, non errealitate edo asmatutako fenomenoak eta prozesuak erreproduzitzen esperimentatu daitekeen.</p>

 <p>Stellarium</p>	STELLARIUM	<p>Unibertsoa pantailatik ezagutzeko aukera eskaintzen duen ordenagailu eta mugikorretarako aplikazioa da.</p>
 <p>Subtitle Editor</p>	SUBTITLE EDITOR	<p>Beste aplikazio batzuek sortutako azpitituluak sortzeko edo fitxategiak editatzeko erabiltzen da.</p>
 <p>Sudoku</p>	SUDOKU	<p>Ordenagailuetan egoten den jokua, logika puzzle bat da.</p>
 <p>Sweet Home 3D</p>	SWEET HOME 3D	<p>Zure etxe barruko diseinurako doako aplikazioa da, zure altzariak etxeko 2D plano batean kokatzen laguntzen dizuna, 3D aurrebista batekin.</p>
 <p>Synaptic paket...</p>	SYNAPTIC PAKETE-KUDEATZAILEA	<p>Paketeak kudeatzeko tresna grafikoa da. Synaptic-ek ezaugarri hauek eskaintzen ditu: Paketeak instalatu, kendu, konfiguratu, eguneratu eta deskargatu.</p>
 <p>Systemback</p>	SYSTEMBACK	<p>Sistemaren eta erabiltzailearen konfigurazio fitxategien babeskopiak sortzea errazten duen programa da.</p>
 <p>Taula grafikoa</p>	TAULA GRAFIKOA	<p>Taula grafikoak editatzeko edo sortzeko balio du.</p>

 <p>Terminala</p>	<p>TERMINALA</p>	<p>Interfazea grafikoa erabili gabe sistemara sartzeko modu bat da, hau da, era guztietako lanak testu formatuan burutzeko.</p>
 <p>Testu-editorea</p>	<p>TESTU-EDITOREA</p>	<p>Testu fitxategiak sortzeko edo editatzeko aukera ematen du.</p>
 <p>Thunderbird Mail</p>	<p>THUNDERBIRD MAIL</p>	<p>Thunderbird doako eta kode irekiko posta elektronikoa, albisteak, txata eta egutegiko bezeroa da, konfiguratzeko eta pertsonalizatzeko erraza. Gmail antzekoa.</p>
 <p>Transmission</p>	<p>TRANSMISSION</p>	<p>BitTorrent protokoloarekin fitxategiak deskargatzeko erabiltzen da.</p>
 <p>Tux Paint</p>	<p>TUX PAINT</p>	<p>3 eta 12 urte bitarteko haurrentzako marrazki programa da.</p>
 <p>Tux Paint konfigurazioa.</p>	<p>TUX PAINT KONFIGURAZIOA</p>	<p>Tux paint programa konfiguratzeko duen beste programa bat da.</p>
 <p>Ubuntu Software</p>	<p>UBUNTU SOFTWARE</p>	<p>Ubuntu aplikazio denda da.</p>

 <p>USB irudi-idazlea</p>	<p>USB IRUDI-IDAZLEA</p>	<p>USB-ak irakurtzeko erabiltzen den programa da.</p>
 <p>USB memoria formate...</p>	<p>USB MEMORIA FORMATEATZAILEA</p>	<p>USB memoriak formatuz aldatzeko balio duen programa da.</p>
 <p>VLC multimed...</p>	<p>VLC MULTIMEDIA-ERREPRODUZIGAILUA</p>	<p>Doako eta kode irekiko plataforma anitzeko multimedia erreproduzizailea da, multimedia fitxategi gehienak erreproduzitzen ditu.</p>
 <p>vokoscreenNG</p>	<p>VOKOSCREEN NG</p>	<p>Zure mahaigaina grabatzeko balio duen aplikazioa da.</p>
 <p>Web-aplikazioak</p>	<p>WEB-APLIKAZIOAK</p>	<p>Interneteko orrialde batera bidaltzen zaituen aplikazio bat da, non web aplikazioei buruzko hainbat gauza azaltzen dituzten.</p>
 <p>Xournal++</p>	<p>XOURNAL++</p>	<p>Oharrak eskuz hartzeko aplikazioa da eta honekin PDF fitxategietan oharrak egin ditzakegu.</p>
 <p>Zim Mahaigain...</p>	<p>ZIM MAHAIGAINA</p>	<p>Gure ordenagailuko mahaigainetik gure erabilera pertsonalerako wiki bat sortzeko aukera ematen digun software aplikazioa da.</p>